

TEKNOLOGIA DIGITALEN ERAGINA EGUNEROKO BIZITZAN (2023ko apirila) Prensa oharra

SARRERA

Ikerketa honen gaia teknologia digitalek eguneroko bizitzan duten eragina aztertzea izan da. Landa-lana 2023ko martxoaren 13tik 18ra egin zen.

Zientzia eta teknologian eta adimen artifizialean interes handia

Euskal herritarrek uste dute datozen urteetan **aldaketa sozial eta ekonomiko** handiak edo dezentekoak egongo direla Euskadin (% 76), baina ez dago adostasunik aldaketa horien balorazioari dagokionez: % 40k uste dute Euskadirentzat positiboak izango direla, eta % 38k, berriz, negatiboak izango direla. Beste % 11k diote besterik gabekoak izango direla, eta % 8k, berriz, alde batetik positiboak eta bestetik negatiboak izango direla. Adineko pertsonak eta gazteenak baikorragoak dira datozen aldaketa sozial eta ekonomikoari dagokienez.

Zientzia aurrerapenak eta teknologiaren garapenak herritar gehienek interesa erakartzen dute, eta % 80k interes handia edo nahiko handia dutela adierazi dute. Interesak zertxobait gora egin du 2020aren aldean. Gainera, biztanleen % 42k adierazi dute zientziaren eta teknologiaren aurrerapenari buruz oso edo nahiko informatuta sentitzen direla; ehuneko hori ia ez da aldatu 2020tik.

Adimen artifizialarekiko eta gauzen Internetekiko interesa zertxobait txikiagoa da, baina kasu honetan ere erdia baino gehiago dira interes handia edo nahiko handia dutenak (% 51). Gaiarekiko informazio-mailari dagokionez, % 27k adierazi dute oso edo nahiko informatuta daudela arlo horretan egindako aurrerapenei buruz. Adimen artifizialarekiko interesa eta ezagutza handiagoa da gazteen artean, eta gizonen artean.

Gehienek positibotzat jotzen dute teknologia digitalek ekonomian (% 67), bizi-kalitatean (% 67) eta gizartean (% 59) **duten eragina**. Hala ere, azken hiru urteetan zertxobait handitu da inpaktu horren zentzuari buruz zalantzak dituztenen edo eragina negatiboa izan daitekeela uste dutenen kopurua; gizartearentzat eragin negatiboa izango dela uste dutenen kopurua handitu da batez ere (2020ko % 27tik egungo % 35era).

Herritarren erdiek uste dute trebeak direla teknologia berriak erabiltzen

Herritarren erdiek uste dute beren **eguneroko bizitzan** teknologia berriak erabiltzeko **gaitasun** nahikoa dutela (% 50). Aldagai hau estuki lotuta dago, alde batetik, adinarekin, zenbat eta gazteago orduan eta trebeago, eta beste alde batetik, sexuarekin, gizon gehiagok (% 55) diote trebeak direla emakumezkoak baino (% 47).

Zerbitzu publikoak online erabiltzeko trebetasunari dagokionez, hala nola beka bat eskatzeko edo errenta-aitorpena egiteko, % 42k esan dute oso edo nahiko trebeak direla. Zentzu horretan ere trebe sentitzen diren pertsonen ehunekoa handiagoa da gazteenen eta gizonen artean (% 46, emakumezkoen % 37ren aldean).

Ehunekoa antzekoa da **ikaskuntza digitaleko eta online ikaskuntzako** aukerak baliatzeko gaitasunari dagokionez, eta % 41ek uste dute trebeak direla horretan. Kasu horretan ere, trebetasunaren pertzepzioa handiagoa da gazteenen eta gizonen artean (% 45, emakumezkoen %38ren aldean).

Lan munduan, ordea, lan egiten dutenen % 75ek sentitzen dute trebetasun nahikoa dutela bere lanean teknologia berriak erabiltzeko. Kasu honetan ere gazteak trebeago sentitzen dira, baina, aldiz, sexuen arteko aldea ez da hain esanguratsua (gizonen % 77 eta emakumeen % 73).

2020arekiko bilakaerari dagokionez, badirudi bizitzako hainbat esparrutan teknologia berriak erabiltzeko norberaren trebetasunaren pertzepzioa zertxobait murriztu dela hiru urte hauetan, agian erabiltzeko beharra handitu egin delako maila guztietan.

Interneten erabilera orokortu egin da bizitzako esparru ezberdinetan, segurtasunari buruzko zenbait zalantzarekin

Biztanleriaren % 83k **egunero erabiltzen du Internet**: % 39k orduero, % 24k bi edo hiru orduero eta % 20k gutxiagotan. Gainera, herritarren beste % 7k ere Internet erabiltzen dute, egunero ez bada ere; beraz, EAEko hamar pertsonatik bederatzi Interneten erabiltzaileak dira. Ehuneko hori % 100eraino igotzen da 45 urtetik beherakoan artean, eta % 96ra 46-64 urtekoen artean.

Aldagai horren bilakaerak ez du zalantzarik uzten: 2011n, biztanleen % 63k erabiltzen zuten Internet; 2018rako, berriz, ehuneko hori % 85eraino igo zen, eta, azken urteetan igotzen joan da, egungo % 90era iritsi arte.

Internetera konektatzeko, nagusiki, **telefono mugikorra** erabiltzen da: % 76k erabiltzen dute telefono mugikorra lehentasunez Internetera konektatzeko; duela 3 urte baino hamar puntu gehiago.

Sarearen erabilerrari dagokionez, % 74k bankuko gestioak egin dituzte Internet bidez, % 64k telebista, telesailak edo filmak ikusi dituzte, % 63k egunkaria irakurri dute, % 60k produktuak erosi, % 53k fitxategiak deskargatu eta % 19k produktuak saldu.

Interneteko erabiltzaileen % 42k **informazio pertsonala partekatzen** dute Internet bidez; ehunekoak % 58ra arte igotzen da 29 urtetik beherakoan artean. Sexuen arteko aldea ez da hain nabarmena kasu honetan, eta zertxobait gehiago dira informazio pertsonala partekatu duten emakumeak (% 45) gizonak baino (% 39).

% 68 oso edo nahiko **kezkatuta** daude Interneten delitu baten biktima izateko aukerarekin (identitatea lapurtzea, salmenta batean iruzurra pairatzea, bankuko datuen lapurreta, etab.), eta % 32 Interneten jazarpenaren biktima izateko aukerarekin; emakumeak (% 37) gizonak (% 27) baino kezkatuago daude azken aukera honekin. Gainera, % 46k uste dute ez daudela behar bezala babestuta Interneten delitu baten biktima izateko aukeraren aurrean.

% 64k **sare sozialak** erabiltzen dituzte maiztasun handiagoarekin edo txikiagoarekin; % 37 maiz eta % 27 noizean behin. 29 urtetik beherakoan artean, ehuneko hori % 95eraino igotzen da. Sare sozial horietan agertzen den informazioari **sinesgarritasuna** ematea, informazioa partekatzen duen pertsonaren sinesgarritasunaren arabera da batez ere (% 31), eta ondoren ondo dokumentatuta egotearen arabera (% 28) edo beste hedabide batzuetan ere agertzearen arabera (% 24). % 40k bakarrik kontsultatu dute inoiz datuak egiaztatzeko webguneren bat, istorio bat egiaztatzeko edo frogatzeko.

Sare sozialen erabiltzaileen % 72k ez dute uste erabiltzaileen datu pertsonalen **segurtasuna behar bezala zaintzen** dutenik sare horiek.

Robotak gero txertatuago gure eguneroko bizitzetan

% 50ek **erabili dute noizbait robot bat** etxean, lanean edo bietan (adibidez, robot xurgatzaile bat etxean edo robot industrial bat lanean). Ehuneko hori 8 puntu igo da hiru urtean.

Gainera, % 57k roboten eta adimen artifizialaren **irudi positiboa** dute. Azken urteetan gora egin du zertxobait robotei buruz irudi negatiboa duten pertsonen kopuruak (% 27tik % 32ra) eta horiei buruzko zalantzak dituztenenak (% 7tik % 12ra), batez ere emakumeen artean.

Dena den, gehienek uste dute robotak **beharrezkoak direla**, pertsonentzako oso gogorrak eta arriskutsuak diren lanak egin ahal dituztelako (% 80), eta robotak eta adimen artifiziala gizartearentzat onak direla, pertsonen euren lana egiten edo etxeko eguneroko lanak egiten laguntzen dietelako (% 70).

Etorkizunean robotek izan dezaketen **inpaktuari dagokionez**, biztanleriaren % 54k uste du lanean garatzen dituen edo zituen lanak robotek edo beste teknologia edo aplikazio informatiko batzuek egin ditzaketela datozen 15 urteetan (neurri batean edo guztiz), eta % 41ek, berriz, ezetz. Gehienek uste dute, halaber, roboten eta adimen artifizialaren erabileraren ondorioz, sor daitezkeen lanpostu berriak baino gehiago galduko direla (% 66).

Etxeko lanei dagokionez, % 76k uste dute 15 urtean robot edo aplikazio informatiko batek egin ahal izango dituela gehienak (neurri batean edo guztiz), eta % 22k soilik uste dute ezetz.

Robotek modu autonomoan egin ditzaketen zeregin **delikatuagoi, arriskutsuagoi edo pertsonalagoi** dagokionez, % 53 prest egongo lirake robot batek ebakuntza bat egin ziezaien, % 43 gidaririk gabeko ibilgailu autonomo batean bidaiatzeko eta %36 robot batek zain zitzan. Kontu honetan, **sexuen arteko aldea** handia da; emakumeen artean askoz gutxiago egongo lirake prest robotak erabiltzeko kasu horietan guztietan: emakumeen % 42 egongo lirake prest robot batek ebakuntza egin ziezaien, eta gizonen % 64; emakumeen % 35 prest leudeke ibilgailu autonomo batean bidaiatzeko, gizonen % 53ren parean; eta emakumeen % 27 prest leudeke robot batek zain zitzan, gizonen % 46ren parean.

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 1.016 lagunek osatua da. Elkarrizketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa \pm % 3,1ekoa da EAE osorako, % 95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2023ko martxoaren 13a eta 18a bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

<http://www.euskadi.eus/ikerketa-soziologikoak>

Vitoria-Gasteiz, 2023ko apirilaren 19a